

## **DIRU SARRERAK**

**Aktiboen salmenta:** Gure diru-sarrerak aktiboak (gure produktua) saltzen lortuko ditugu nagusiki. Bezeroek gure produktua kontratatuko dute eta hortaz, dirua irabaziko dugu. Produktuaren prezioa **150-200€** finkatuko dugu. Etxebizitzetako sarrailak normalean 100€ inguru kostatzen dituztelako eta gurea seguruagoa eta fabrikazio konplexuagoa izatean gure produktua pixka bat garestiagoa izango da.

**Zerbitzu kosteak:** Gure lankideak etxebizitza batera joateagatik, zerbitzu koste bat kobratuko dugu 9.99€koa. Zerbitzu koste honi esker, garraio bidearen kostuak ordainduko ditugu eta lankideei diru sarrera bat gehiago gehituko diegu.

**Publizitatea:** Gure produktuaren instalazioa gure enpresa burutuko du, hau da, ez dugu beste inor kontratatuko lan hau egiteko. Hortaz kamioiak izango ditugu instalazioak egiteko. Kamioi hauetan publizitatea egiteko aukera izango dugu, eta enpresaren bat gure kamioian publizitatea egitea nahi badu, hortik ere diru sarrerak izango ditugu.

**Harpidetza:** Horretaz gain, harpidetza eskaintza bat ere izango dugu. Harpidetza honen bidez, gure produktuan egindako aurrerapenak ateratzean eta aktualizazio berrietan eskaintzak izango dituzte. Honi esker, ez gara beti egongo bezero berriak bilatzen dirua irabazteko, harpidetzatik ere diru sarrerak izango ditugulako.